

Desinformazioa

JOAN MARI TORREALDAI



MAKINA bat idatzi dut nere bizitzan, eta orain ezin dut 20 lerro ere osatu. Hiruzpalau periodiku irakurtzen ditut egunero, eta ez dakit zertaz idatzi. Irrati bat baino gehiago entzuten dut. Agorra nago, bistan da!

Azken egunotako albiste zaparradak bihurtu nau agor, legor eta idor.

Ez du ba ematen zaila denik lerro soil batzuk idaztea! Sekula baino errazago orain, ezta? Gaia, bertsolaritzan bezala, emanda dago: Bidarteko atxiloketak. Joku-arauek ere ez dute oso zailak ematen: hipotesi 'sinesgarri' bat asmatu eta haren inguruan egin muntaia. Berdin dio egia izan ala ez. Aski da egia-antza. Iturririk ere ez dago zertan aipatu. Aski duzu eranstea: «según fuentes policiales» edo «en medios abertzales». Hortik aurrerakoa norbere abilidadek agintzen du.

Izan ere, egunotan idatzi den guzti honetan zer da egia, erdi-egia, fantasia, asmakizun hutsa, elukubrazioa, intosikazioa, eta gezurra? Prezio berean saltzen zaigu dena. Batere baherik gabe. Kazetaritzako kode etikoan ez al da agertzen helburu batek, ona izanagatik, ez duela edozein bitarteko onartzen? Ez al da bereizten informazioa eta manipulazioa, informazioa eta sumoa?

Usteko informazio-bonbaketa hau desinformazio bilakatu zaigu. Egiaren aztarrenik jakiteke segitzeko biderik hoberena periodiku guztiek publikatu duten guztia irakurtzea da, eta irrati-telebista guztiek diotena entzutea. Harritzekoa al da, hortaz, baldintza horietan luma moteltzea? Osasun mentalaren faboretan erremedioa bilatu beharrean nago: kazetari eta komentaria orojakile horien lanei pascio egingo diet aurrerantzean, eta kitto.

Cuervo de Monteancho

JOSEMARI VELEZ DE
MENDIZABAL

ORAINDIK ez zait gertatu baina dena suerta daiteke. Eta usterik gutxien denean jazo daitekeelako, nik bederen nire neurriak hartu ditut, azken uneko usteka-beak harrapa ez nagan. Txaskarriola Xabier Mendiagak ekarri zidan eta nire konfidantza osoa duenez gero, sinetsi egin nion. Baina, bere hitzek nigan eragindako harridura-aurpegiaz jabeturik, fotokopia bat eskuetarazi zidan, duda izpirik gera ez zedin.

Orain, dirudienez, Eusko Jaurlaritzan izen-deiturak itzuli egiten dituzte; hau da, zure abizena Mendia edo Etxebarria baldin bada jaurlaritzatarrek Monte edo Casanueva ipintzen dute. Benetan, ez nago bromatan. Behintzat, hori frogatu daiteke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailetik irten den eskutitz baten irakurketaz. Ez dakit moda berria hau 'psozialistoe' beharturikoa izango ote den; horretaz ez naiz oraindik enteratu.

Xabieren adiskide batek eskabide bat egin zuen sail horretara. Eskutitza, demagun, Antonio Iturriride bere izenarekin sinatzen zuen igorleak. Erantzuna bere etxean jaso zuen handik zenbait egunetara, zeini bialduta eta Camino de la Fuente de Antonio delako bati. Harrapazak! Bitxiena zera da, Buesaren nahiei jarraikiz, nola ez zioten Anthony's Fountain way ipini.

Beraz, badakizue. Hemendik aurrera kartazalen bat iritsen bazaizue izen arraro batekin, itzul ezazue euskara eta, agian, zuentzat izango da.

● EL PAIS

Bira olinpikoa

Gertaerak Generalitateko Gobernuaren politika olinpikoa bira dakarte, eta baita bertako kirol agintari nagusiarena ere. Jordi Pujolen helburua Jokoen akordioa aldatzea eta bereizitako batzorde olinpikoa sörtzeko baino erritmo askoz bizkorragoa bultzatzea da. Esan beharrik ez dago, kontsentsu giroa aldatzean, bira horrek ez diola inola ere Joko Olinpikoen arrakastari laguntzen, ez eta olinpismo katalan edo espainolari ere. Zer irabaziko lukete kirolari katalanek bereizketarekin, 'egonezineko ondorio negatiboez gain'?

EDITORIALA

● DEIA

ETAk ohorea galdu du

Armekin zebiltzan neska-mutiek bazuten orain arte halako itzal bat, zintzolatza fama. Beroien

bizitza latza, eredugarria gertatzen zen jendearentzat. Orain, ordea, bapoz bizi zenik ere agertu da: txoferrak, bizkargoardak, txaletak eta abar. Batzuk bizia arriskatuz dabilzan edo kartzeletan ustelzen dauden bitartean, burua oparo bizi zela ikusi da. Eta gainera, diktadore bat dela. 'jotake' dabilzan bere mendekoei jaramonik egiten ez diena. Berak bezala pentsatzen ez dutenak, 'ustelak' dira, 'etsita' daude edo 'azpijanean' ari zaizkio.

M. ATXAGA

● ABC


Eligio haizeak

Felipismoa epaiak, hobetzen ahalegintzen da eta ez Justizia Administrazioaren funtzionamendua hobetzen. Ez dio hainbeste axola Epaitzietako kaosak, epaiketa batek zein bestek ekar ditzaketen ondorio politiko kal-

tegarriak baizik. Epaiak legearen zorrotasunaren aldeko apostua egiten badute, filipismoak sarri askotan Auzitegien biguntasuna nahi du. Zorionekoa da bere nahietan: hasi Kontuen Auzitegiatik eta Konstituzio Auzitegiaren gánaino, tartean Auzitegi Gorena edo Andaluciako Auzitegi Nagusia egonik. Ikusgarria da Felipismoak zenbait epailerekin duen zortea.

FEDERICO JIMENEZ
LOSANTOS

HEMEROTEKA



EL DIARIO VASCO

ZUZENDARIARI

Sta M^a de la Asuncion klinika

Guztiok ezagutzen dugu Sta M^a de la Asuncion S.A. klinika jasaten ari den egoera. Otsailaren hasierako idatzi batean esan genuenez, egoera gero eta okerrago ari zen bihurtzen eta martxoaren azken egunetan areagotu egin zen.

Pixkanakako lanpostu galerari, denboraldi baterako kontratadun langileak batez ere, gehitu behar diogu, zenbait medikuk klinika utzi duela etorkizun ikuspeirik ezaren ondorioz.

Hori gutxi balitz, langileei gehitzen ari zaie soldata zorra, bi hilabete zor zaizkie eta inork ez dio erantzun egokirik ematen arazoari, ez zentruko Zuzendaritzak, ez Tecnivas aholkularitzak.

Guzti horren aurrean, eta eskualdeko partidu politiko eta Udalek arazoarekiko eta, batez ere, eskualdeko etorkizun sanitarioarekiko ardua adierazi dutela ikusirik, langileok ikusten dugu bai lehengo Klinikako Zuzendaritza

(Benito Izagirre, Ramon Arbillaga, Juan M^o Kerejeta) eta bai Consulting Tecnivas, aurkeztezinako Bidegarritasun Plan bat aurrera eramane nahian dabilzala, oinarritutaz irizpide merkantilista hutsak dituen eta langile eta sindikatu guztiek bazartu dutena.

Beraz, Sta M^a de la Asuncion klinikako langile asanbladak klinikan agertu den arazoarekiko irtenbideak exigitzen ditugu eta, batez ere, egoera honen arduradunei exigitzen dizkiogu, hau da, klinikaren zuzendaritza, Tecnivas eta Osakidetza.

ASUNCION KLINIKAKO LANGILE
ASANBLADA

Tolosa (Gipuzkoa)

«Denak edo inor ez»
(Bertolh Bretsch)

Frantxua Garaten libratzeak, askatzeak, gain gaitetik denak pozten gaitu. Baina, bakerako bidean, hori ote da Euskal Herriak behar duena, eskatzen duena, hori aski ote da? Aterabide bakarkoiek faboritismoa dakarte

eta faboritismoak banaketa, zatiketa. Preso altxatze bakoitzean, Gandhi-k preso berriei, zorionezko telegrama bidaltzen zien...

Estatu frantseseko 60 presoek, Estatu espanyoleko beste 600ek, ehundaka preso politikoe, euskal populuaren gehiengoak, bakea, egiazko bake zuzena eta iraunkorra oroz gaitetik gutzizatzen, desiratzen dute.

Justiziaren aztaparretarik, Eliza gai baldin bada bere seme bat ateratzeko, bere lana, bere egin beharra ez ote da ere, nolaz ez, bakerako bideak idekitzea? Beti ere Herrien eskubideak zainduz, gordez. Bakerako urratsak luzatu behar dira, hiltzerik ez dadin izan gehiago, preso eta errefusiatuak, burua gora, etxera itzul daitezen, tortura ez dadin amets txar bat baizik izan...

Anai-Arteak, bere aldetik, Denis Langloisen proposamenari —hau da, bakerako mahain inguru internacional bat antolatu behar dela— bere sustengu osoa berriro dakarkio.

MIXEL MENDIBOURE
Fresneseko gartzela

GAIA JARRITA

Nafarroako
Bertsolari
Txapelketa

Neurtzera doaz sei heldu eta bi gaztetxoek kemenak zuek zarete bertsolaritzak dituen lore ederrenak bildurrik gabe kanta gogotik zuen barne sentipenak entzun ditzala herri berak ta agintean dagoenak ta txapeldunak jaso ditzala zorionik beroenak.

LONTXO ABURUZA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDEKontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
LUZIE ETXEZAHARRETA, INAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02
Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso
Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 /
Faxa: 23 38 73Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) /
31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo /
☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia.
/ 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11